

**«EL LENGUAJE COMO REALIDAD
SOCIAL» IN LA REALIDAD SOCIAL
MIGUEL BELTRÁN TECNOS, MADRID,
1991, 137-161 ORR.**

Joxe Manuel Odriozola
Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea

Liburu osoa da, bere luze-zabalean, aski interesgarria. Ez dio inori kalte-rik egingo bere osoan irakurtzeak. Hala ere, gure ohiko gaiaren ardatza hizkuntzarekiko gorabeherak direnez, azken aurreko kapitulura mugatuko naiz hemen: «El lenguaje como realidad social».

Kapitulu honen barnean honako atalok idoro ditzakegu: «Introducción», «Lenguaje, conocimiento, control social», «El lenguaje y las ciencias sociales» eta «La lingüística y la dimensión social del lenguaje». Bistan denez, hizkuntzaren gizartetetasuna dago aztergai lerro mamitsu horien barrena. Ez hizkuntza bere izari psikologikoan edo gizabanakoaren baitan. Hizkuntzaren gorputza, gizarte-errealitatea, izango dugu beraz mintzagai eta gogoetabide.

Lehenik eta behin metodologiaren aldetikako zehaztapan bat datorkigu hastapenean bertan. Zertan datza aldea honako bi azter-metodo hauen artean? Bateko soziolinguistika eta besteko hizkuntzaren soziologia. Beltranek mugarri argi samarra ipintzen digu bien artean. Eta hizkuntzalari-tzaren ikergaia alde batera utzita, soziolinguistikatik abiatzen da: «*En segundo lugar, la orientación sociolingüística, que siendo, como su denominación indica, parte de la lingüística, se centra en el estudio de la dimensión social del lenguaje, interesándose por aquellas variables y circunstancias que explican la variedad lingüística asociada a la estructura social. Por fin, la*

perspectiva sociológica: la sociología del lenguaje es sociología, no lingüística, y justifica su existencia gracias a la consideración del lenguaje como realidad social; como una <cosa social> más, pero extremadamente importante por su condición de simbolizador universal, por su peso en el conocimiento, y por ser el principal instrumento de comunicación».

Lengoiaren funtzioetako bat gizarte-kontrolarena omen da. Hortik abiatuturik, C. Wright Mills-en eskutik abiatu ere, hizkuntzaren egiteko hori zertan den arakatu nahi du. Mills-en hitzok emango diote oin gizarte-kontrolaren funtzio hori nola bideratzen den azaltzeko: «Esanahia aldez aurretik emana dago; <gizarte sorkari> bat da hizkuntza». Hitz egin nahi duenak, edota pentsatu nahi duenak, bere esangura aditzera emateko, adiera eta zentzu jakin bat «emango die» hitz sinboloei; eta hori nolazbait ere mugatua dago entzulegoaren aldetik. Era honetara, pentsamenduaren gainean eragin erabakigarria dauka lengoiak; eta lengoiaren bitartez ezarritako giza-jokamoldeak zentzu jakin batean bideratuak omen daude. Horra beraz Mills-en iritzia: «pentsamenduaren gaineko kontrola lengoiaren bitartez». Hizkuntzaren definizio soziologiko honetan barrena, hizkuntza gizakioi ezarri zaigun zerbait bailitzan aurkezten zaigu. Nire munduarekiko oharrena eta hauteman-bidea ezarritako sistema horren bitartez egingo dut; galbahe horretatik igaroko da ene ikuskeraren gauzarik xumeena ere. Pentsamendua elkarrizketaren dialektikan garatuko da, baina dialektika hori hizkuntzaren galbahean txertatua dago.

Dakigunez, Whorf-en hipotesia are indartsuagoa da hizkuntzaren zereginarela eta. Hizkuntzaren eragina bai pentsamenduan eta bai giza-jokamoldean ia erabatekoa da; eta eragin horretan zeregin xumea izan bide dute sistema sozialari darizkion egitura-harremanek. Honelatsu dira gauzak autore honentzat: gizarte-harremanak hizkuntzaren barne-eraginez determinatuak daude hizkuntzak kulturaren sorkuntzan duen funtzio eratzaileri esker. Beste modu batean esanda, hizkuntza eta kulturaren arteko lotura eta harremana ez dago, hain zuzen ere, gizarte-egituren bitartez bitartekatua. Horrela, Whorf-en hipotesia kritikatzeko Basil Bernstein aukeratu du Beltranek. Eta harena ezaguna baldin bazen hizkuntzaren eragina nabarmentzerakoan, honena gizartetasanaren bitartekatza azpimarratzeko izango da. Bernstein-en hipotesia, laburbilduz, honakoa da: hizketa-moldeek mundu-ikuskeran eta kulturaren sekulako eragina dute, baina hizketa-molde hori aldi eta alde berean gizarte-harremanen eskutik moldatua dago. Era horretara, hizketa-molde berezi horiek gizarte-harremanen bitartekatuz eratutak daude eta kultura-dukien eta giza-jokabideen baitan eragina dute.

Hizkuntzaren izari politikoa eta etikoa aztertzeke Habermas-en ildoari jarraituko zaio. Autore honentzat gaitasun komunikatiboa (ez soilik gaitasun linguistikoa) faktore askoren eskutik dator; hala nola, norberaren giza-gaitasuna, edo baldintza soziokulturalak, eta bereziki harreman erakundetuaren aldetik ezarritako komunikagarritasuna. Bere tesiaren funtsari bagagozkio, komunikazioaren antolakuntza menderakuntzaren gai-

nean eraikia dago, eta ez hiztun-agenteen arteko truke askean. Egoera makur horri zor zaio hain zuzen egiazko komunikaziorik eratu ezina; solaskideen arteko ezin-ulertua abiaburuko baldintza menderatzaile horiei darien ezina besterik ez da. Harreman linguistikoen zinezko berdintasuna zehazteko Bertran-en hitzok argiak dira, beti ere Habermas-en tesiari atxikirik: *«Los requisitos que podrían exigirse para una situación lingüística ideal serían los siguientes: que no exista violencia, que ninguna de las partes se vea privilegiada en el intercambio comunicativo, que éste sea ilimitado, que haya completa simetría en la participación (de suerte que una de las partes no pueda imponer sus propias normas de discusión, y ambas partes tengan iguales oportunidades de expresarse), y que exista la posibilidad de cuestionar los símbolos tradicionales y las propias reglas del discurso»*. Alabaina, komunikazioaren zinezko berdintasun honi ere elebitasun sozialari gertatzen zaiona jazo bide zaio. Hots, ea inoiz ez dela baldintzarik suertatzen eredu ideal hori mamitzeko.

Habermas utzi eta Bourdieu-ren zenbait ekarpeni lotzen zaie Beltrán. Soziologo frantsesaren argitan hizkuntzaren erabilera-mota desberdinak ikertu gura ditu. Alegia, erabilera-mota horien arabera hierarkia soziala aurkitu. Hizkera motaren arabera hiztunaren kokagune soziala halakoa edo bestelakoa izango dela uste du soziologo honek. Zentzu honetan, Bourdieu-ren iritzirako, hizkuntz elkarrekintza ezin da murriztu hiztunen arteko mintzabidera. Aitzitik, hiztunen arteko mintza-jardunean gertatzen dena askoz haratagoa doa; hain zuzen ere, hizkuntzaren erabilera-moten arteko harreman objektiboei darie mintzabide hori azken finean. Eta zehazkiago adierazita, erabilera-mota horiek darabiltzaten taldeen arteko aldea dago hizkuntzaren baitan islatua. Euskararen auziari aplikatu nahi izanez gero, honakoa da ondorioa: hiztun euskaldun eta erdaldu-naren arteko komunikazioan islatzen dena ez da hiztunaren mailako gertaera mikrosoziologikoa, azpian, eta hiztun bakoitzaren euskarri, dauden bi gizataldeen arteko hierarkizazio soziolinguistikoa baizik.

Beltrán jauna ere bat dator Bourdieu-ren oinarrizko irizpidearekin. Hizkuntz-jarduna ezin da mugatu hiztunen gorabehetara. Eta, nik uste, iritzi hau ez da ahuntzaren gauerdiko ezturen pare sailhestekoa. Horra, bada, bere pasarte adierazgarri hau hona aldatzeko zioa. Honela mintzo zaigu, beraz: *«Pero la teoría sociológica no puede concebir el habla como expresión fortuita de opciones individuales, sino todo lo contrario: como un sistema paulatino de intercambios sociales, que es resultado de las desigualdades, de presiones institucionales, de relaciones de poder. Cabría decir que el sistema de relaciones sociales determina el uso hablado de la lengua en forma de reglas tipificadas de selección lingüística, dependientes de una determinada situación: esto es precisamente lo que Saussure llamó <lingüística externa>, y consideró marginal al objeto de conocimiento de la lingüística»*.

Hizkuntzaren soziologiarentzat biziki jakingarria da hizkuntzaren beraren definizioa. Zer da hizkuntza bat? Nola hauteman dugu guk hizkuntzaren izaera? Lengoiaren egitekoa subjektua eta gizarte-errealitatearen

arteko tresna hutsera mugatzen ote dat? Alegia, mintzaira gizartegintzatik at dagoen bitartekoa ote? Hizkuntzaren definizioa ematerakoan Fishman-engana jotzen du Beltrén-ek. Baina ohartxo bat egiten du atarian: definizio honen iturria ez dator Fishman-engandik, MacLuhan-engandik baizik. Dirudenez, judu-amerikarrak honengandik hartu zuen definizioaren muina. Hasteko, zera diosku: hizkuntza bitarteko izanik, mezua ere bada aldi berean; hau da, hizkuntza ez da komunikabide hutsa, edukierazien adierazlea, baizik eta hizkuntza edukia ere bada aldi berean. Izan ere, hizkera edo hizkuntza baten erabilera, hizketa-molde baten edo mintzaira baten erabilera, atxekimenduen eta ezinikusien adierazle ere bai baita, balorazio eta sentimenen adierazpide ere bai baita orobat. Aho batez onartzekoa dela deritzogu ikusmolde hau: *«El que un individuo se dirige a otro en una situación determinada utilizando una lengua u otra, un dialecto u otro, con una u otra fonética, empleando tal o cual vocabulario, no es en modo alguno meramente instrumental, sino sustantivo»*.

Horra, beraz, Beltrán-en eskutik aipatu ditugun zenbait puntu eztabaidagarri. Norbaiti besterik irudi badakioke ere, auzigaion eragina ez da hutsaren hurrengoa izaten hizkuntz gatazkaren planteamenduak itxuratzerakoan. Eta eragin hori oso nabarmena da hizkuntz politikaren eremuan: hizkuntzaren izaera soziala hautemateko erak asko baldintzatzen du hizkuntz normalkuntza sozialaren ikuspegia. Demagun, esaterako, ikuspegi jakin batek hizkuntzaren izaera honelatsu hauteman duela. Alegia: hizkuntzaren zeregina azken batean komunikazio-tresna denez, indarrean dagoen estatu quo soziokulturala dagoen dagoenean utzita ere, hizkuntzaren berreskurapena litekeen gauza da. Bistan denez, planteamendu horretan hizkuntzaren ikuspegiak erabateko eragina dauka hizkuntza plangintza eta politikaren norabidean, baina oso zentzu jakin batean: hizkuntza «berri» bat, gurean euskara, orain arte eremu-funtzio askotatik at egon dena, «gáinetik» ezarri nahi da, azpiko inplikazio soziokulturalak eta ideologikoak existituko ez balira bezala. Egunen batean ikertu beharko dira «azpiko» inplikazio hauen luze-laburrak hizkuntzaren ikuspegi idealista eta boluntarista hutsetan ez jausteko. Ea nork ekiten dion!